Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juanita Zulueta Urdengarai

Bermeo, Bizkaia
(1929-2012)



Aurkibidea

Biografia



1929. urtean jaio zen General Artieda kalean, Adoberian. Aita ere bertakoa zuen, arotza; ama, ostera, 6-4 urterekin uritik ekarritakoa. Bost neba-arrebatan gazteena izan zen eta umetatik aitaren tailerrean laguntzen zuen. Karmeldarren ikastetxean ikasi zuen. Beti izan dute soloa eta behar asko egindakoak dira. Ezkondu aurretik, zazpi urte egin zituen Logroñon ahizpa zaharrenaren etxean. Bere senarrarekin, Jesus Arkotxarekin, eta bere ahizpa Antonirekin batera egin genion elkarrizketa.

Zintak

BRM-031

- **Proiektua**: Bermeoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2010-12-01
- **Iraupena**: 68 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

BRM-032

- **Proiektua**: Bermeoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2010-12-01
- **Iraupena**: 71 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

Pasarteak

1. Etxe batean eta bestea bizitzen, aita eta ama etxera itzuli arte

- **Erref**: BRM-031/012
- **Iraupena**: 0:03:29. **Hasi**: 00:19:09. **Bukatu**: 00:22:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Mutikoa zelarik astora igo eta erori egin zen. Dena markatuta geratu zen.

Osabarekin izandako gorabeherak. Bere buruaz beste egin zuen bera zegoen etxeko batek eta beste etxe batera aldatu zen bizitzera, Ormazatarrenera. Halako batean, aita itzuli zen Ameriketatik eta ama Bilbotik inudetzatik, eta harrezkero ondo bizi izan ziren herrian. Eskolara hasi zen joaten, Hermanoetara hasieran.

2. Ama umezurtzaren istorioa

- **Erref**: BRM-031/015
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:24:52. **Bukatu**: 00:25:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:
Ama urikoa zuen. Kontatzen zuenez, jo zitzaizkionean bila umezurztegira, "aldeanie" ikusi zuenean, ihes egin zuela. Baina amamari neskatila hura gustatu, eta ekarri zuen Bermeora.

3. Ama josten ikasten Donostian

- **Erref**: BRM-031/017
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:27:29. **Bukatu**: 00:28:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:
Ama gaztetan Donostian bizi izan zen eta han bere diruarekin josteko makina erosi zuen. Etxera itzuli zen, baina gero berriz joan zen Donostiara, josten ikastera. Gerora, etxez etxe ibiltzen zen josten. Ezkondu eta bost seme-alaba izan zituen.

Transkripzioa
- Juanita: Orduen jun zan... baia horrek ya lehelau. Harek ein zien ezkondu ta bera bakarrik amagaz. Ta ein zeuen ba biher asko gure amak. Baia gure amak, fabrikie ez jatzon lez gustaten ixen, esan eutson /esantzon/:”Ni jungo nai Donostire krixada”. Ze okin zeuen nobidxue ta gure ama: ”Neu ezkondu [holangoxetik?] ez. Ni jungo nai Donostire”. Ta erun zauen nobidxuen tiek Donostire ta ein zauen Donostin 18 hillebete, Antoni, edo urtebete?
- Antoni: 9 hillebete.
- J.: 9 hillebete.
- A.: Ta beran diruaz makiñie jostekue erosi, Singer. Ondiño han dau,.
- J.: Bai, kamaran daku.
-A.: Kamaran.
- J.: Ta esan eutson /esantzon/: ‘’Bueno, oin zer? baie zuk ezin dozu / ezinzu/... behidxe daku behien ta gauzek eta josten ikasten…", "Ez banuen josten ikasten, atzera nun Donostire!”. In zauen josten ikasi ta gero hasi zan beragaz makiñetxuaz [zeueneko] ama lez, etxerik etxe. Ta gero ein zan ezkondu, ezta? Ama. Ze gero amaandik gatoz gu eta okin dittuz gure amak eta aittek 4 seme-alaba. Ez, lehelau alabie, gero bikotx bi, ta gero, ba, geu.

Nebie ta... bost. Ezta? Bai. Honek ez dau entzuten.
- Jesus: Lau zauzie bizirik. Lau zarie, ba... bestie hildde, ba, bost.
- J.: Bai, bost.

4. Txerriak hazten gose denboran

- **Erref**: BRM-031/018
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:28:58. **Bukatu**: 00:30:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gerra etorri zen arren, ez zuten goserik pasatu. Soroa zuten, eta gainera txerriak ere hazten zituzten. Egurra ere saltzen zuten kalean. Aita arotza zen.

5. Urre zuriak eta urre gorriak bakarrik balio zuten

- **Erref**: BRM-031/019
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:30:30. **Bukatu**: 00:33:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gerra denboran, "nazionalak" sartuta gero, diruarekin izandako arazoak. "Euzkadiko diruak" ez zuen jada balio, "urre zurixak" (zilarrezko txanpona) eta "urre gorrixak" (urrezko txanponak) bakarrik.

6. Bilbora zalgurdian sorgin baten kontsultara

- **Erref**: BRM-031/020
- **Iraupena**: 0:03:26. **Hasi**: 00:33:10. **Bukatu**: 00:36:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:
Juanita txikia zela, Bermeon uholdeak izan ziren egunean, erori eta mokorra hautsi zuen. Gerra denbora zen. Bilbora eraman zuten "landoian" (zalgurdian) Solluben zehar. San Frantzisko kaleko igarle-sorgin batengana eraman zuten.

7. Babeslekuetara lasterka sirenak entzutean

- **Erref**: BRM-031/022
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:39:26. **Bukatu**: 00:41:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Bilbon amarekin zegoela (gerra denbora zen), sirena jotzen hasi eta jende guztia "alaurike" eta lasterka joan zen babeslekuetara. Barruan jende guztia errezatzen. Handik irten, Atxuriko geltokira joan eta trenez itzuli ziren Bermeora. Bazuten dirua, gerrara joan aurretik aitak txanponez betetako kafetera bat utzi zielako.

8. Bermeon uholde izugarriak gerrarekin batera

- **Erref**: BRM-031/024
- **Iraupena**: 0:03:11. **Hasi**: 00:42:45. **Bukatu**: 00:45:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
1937ko maiatzaren 2an, uholde izugarriak izan ziren Bermeon. Frontearen lehen lerroan zegoen herria, Solluben "gorriak" eta herrian frankistak baitzeuden. Babestera zetozen soldadu italiar eta alemanak hartu behar izan zituzten etxean. "Politikako liburuak" ezkutuan gordetzen izandako komeriak.

9. Esku-bonba lehertuta, umeak zauritu

- **Erref**: BRM-031/025
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:45:56. **Bukatu**: 00:47:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:
Jolasean zebiltzala, esku-bonba bat aurkitu, lehertu eta bi ume zauritu ziren. Juanitak mokorra hautsita zuen sasoi hartan. Ilea moztu zion herriko ume atzeratu bati.

10. Adurixe kalea, kale polita

- **Erref**: BRM-031/028
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:48:30. **Bukatu**: 00:50:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:
Bermeon jaio ziren Juanita eta Antoni Adurixe kalean. Oso kale polita ei zen.

Garbitoki ederra zegoen. Gogoan du Juanitak nola etortzen ziren soldadu italiarrak mandoekin. Frantziskotarren ortuak zeuden ondoan eta hango madariak jan ohi zituzten. Zoriontsuak izan ziren umetan.

11. Bakailao-olioaz eta taloaz neska ederrak hazi ziren

- **Erref**: BRM-031/030
- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 00:50:23. **Bukatu**: 00:52:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Indaba gorria azaz eta urdaiaz izaten zen eguneroko jatordua. Jesusek dio bere amaren Muruetako baserrian txerrikia ez zela sekula falta. Bermeora etortzen ziren saltzera. Txerriki ugari jandakoa de Jesus bere gazte denboran. Gogoan dute amak nola ematen zien "Aceite de hígado de bacala0". Indabak eta taloa ere sarri jaten zuten. Neska ederrak hasi ziren; beren ahizpak, ostera, ez, "mikoak" zirelako.

12. "Al cocherito leré" kanta

- **Erref**: BRM-031/034
- **Iraupena**: 0:00:43. **Hasi**: 00:57:17. **Bukatu**: 00:58:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:
"Al cocherito leré" kanta. Sokasaltoan egiterakoan kantatzen zuten. Mojetan ibili ziren eskolan eta euskara debekatuta zeukaten. Euskara eta erdara, biak ikasi zituzten ondo.

13. Goserik ez baina gaztarorik ere ez

- **Erref**: BRM-031/035
- **Iraupena**: 0:03:22. **Hasi**: 00:58:00. **Bukatu**: 01:01:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gerra denboran ez zuten goserik pasatu, baina gaztarorik ere ez zuten izan, soloan eta tailerrean jardun behar izaten zutelako beharrean. Bitartean, beren lagunak jolasean kalean. Patata eman izan zieten kaleko familia behartsu bati. Amak labesua egin zain egoten ziren. Meloiak ere hartzen zituzten baratzean.

14. "Fémina", barikuetako zinea

- **Erref**: BRM-031/038
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 01:02:22. **Bukatu**: 01:03:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
Aitaren tailerrean ere lan asko egiten zuten Antonik eta Juanitak. Barikuetan zinea jarri zuten pezeta batean, "Fémina" esaten zitzaion. Eurak beti joaten ziren baina lagunak ez, ez zutelako izaten dirurik.

15. Mojei kalabazak eramaten

- **Erref**: BRM-031/040
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 01:06:02. **Bukatu**: 01:07:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Mojek etxeko ortutik kalabazak ekartzeko esaten zioten Juanitari. Eramaten zizkien; baina jende guztiaren aurrean eskerrak ematen zizkioten, eta lotsa-lotsa eginda geratzen zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-14

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com